mutualia

# ZEN-BA-KITAN 2018

## Misioa

**Zure osasunarekin eta bizi-kalitatearekin konpromisoa dugu.** Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetza duen 2. zk.ko mutua, enpresen elkarte pribatu bat da, irabazi-asmorik gabekoa. Enpresa elkartuei eta babestutako pertsonei osasun-zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak egitea da Mutualiaren xedea. Prebentzioaren kultura sustatzen du, hala bezeroen artean nola gizartean. Horretarako kudeaketa aurreratuko eredu bat erabiltzen du, interes taldeen osasuna, bizi-kalitatea eta asebetetzea hobetzeko. Zerbitzu berritzaileen eta pertsona konprometituen bidez lortzen du hori, eta sozialki arduratsua den eran jokatzen dute, Gizarte Segurantzaren sistemaren iraunkortasuna bilatuz.

## Ikuspegia

Zure konfiantzazko mutualitatea izan nahi dugu, iraunkorra eta fidagarria, zerbitzu aurreratuen kalitateagatik, hurbiltasunagatik eta gizatasunagatik nabarmentzen dena, eta gure pertsonek talentua gara dezaten ahalbidetuko duena, taldean lan eginez, zure beharretara egokitu gaitezen.

## Balioak

Hurbiltasuna | Profesionaltasuna | Taldea | Abangoardismoa | Gardentasuna | Eraginkortasuna

## Gizarte-prestazioak




Mutualiaren Prestazio Berezien Batzordeak 2018an emandako laguntzak.

*Programa Termala, baliaezintasun handia dutenei eta haien laguntzaileei zuzenduta, eta animalien laguntzaren bidez egindako terapiak.

**Laguntza eta terapia psikologikoa, ondorio larriak dituen edo heriotza eragin duen laneko istripuren bat jasan dutenen familiako kideentzat.

## Kudeaketa

2018ko ekitaldia lehena izan da 2018-2020 Plan Estrategikoaren barruan. Bertan, hainbat lan esparru txertatu dira, giltzarri gisa; hala, **pertsonak**, **kudeaketa** eta **zerbitzuak** ditugu, guztiak ere **bezeroei** eta **merkatuari** bideratuta, eta erronkak, adierazleak eta xedeak ezarri ditugu guztientzat. Infografia honetan, esparru horietako daturik esanguratsuenak ikus daitezke.



# Emaitzak

Azken urteetako leheneratze ekonomikoak kontingentzia arruntengatiko prestazioen ordainketa nabarmen handitu du, eta 2018an are gehiago nabarmendu da hazkunde hori; aurreko ekitaldian baino % 10,14 handiagoa izan da. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian 10,2 milioi euro sartu ziren, eta Gizarte Segurantzaren Kontingentzia Profesionalen Funtsean eta Jarduera eteteagatiko Egonkortzerako Osagarrien Erreserban banatu ziren.




*Kontingentzia profesionalen egonkortzerako erreserbaren estaldura eta Kontingentzia arrunten egonkortzerako erreserbaren estaldura.

## Osasun-jarduera

| | | |
|---|---|---|
| 60.007 | Lehen kontsultak | ▲ 1,91% |
| 145.294 | Kontsulta jarraituak | ▼ 0,87% |
| 1.605 | Ebakuntza kirurgikoak | ▲ 0,38% |
| 52.423 | Diagnosi probak | ▲ 2,70% |
| 117.553 | Fisioterapia saioak | ▲ 4,20% |

Esku-hartzeak 376.882

Kexak* 371

*Kanpoko kexak, zeinak izapidetu baitziren; erantzuna eman zitzaien bezero eta enpresei.

## Kontingentzia profesionala

| | | |
|---|---|---|
| ▼ 2,05% | Tratatutako laneko istripuak | 36.514 |
| ▲ 4,75% | Antzemandako laneko gaixotasunak | 1.234 |
| ▼ 2,08% | Ezintasun iraunkorra, heriotza eta bizirik irautea, baremoak eta ezintasunak | 1.037 |
| ▼ 3,40% | Haurdunaldiagatiko eta edoskitzaro naturalagatiko arriskuen prestazioa. | 1.733 |
| ▲ 14,39% | Gaixotasun larri batek jotako adin txikikoak zaintzeko prestazioa | 151 |

Sariak eta egiaztagiriak

2018an lortuak

2018an berrituak

2018an, SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN NAZIOARTEKO IV. BILTZARREAN, Mutualia sarien VIII. edizioaren sariak banatu ziren, hain zuzen, Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorreko Berrikuntza saria eta Berdintasuna Enpresan saria. Aernnova eta Polymat enpresek jaso zituzten aipatutako sariak, hurrenez hurren.



EIBARreko zentroko errehabilitazio-gunea

Urtez urte, Mutualiak instalazioak berritzen jarraitzen du. 2018ko ekitaldian, EIBARreko laguntza-zentroa handitu du, eta errehabilitaziorako eta fisioterapiarako gune handi bat egin da. Hala, azalera erabilgarria bi aldiz handiagoa da, eta 500 metro koadro ingurukoa da orain.

Mutualiak 18 zentro ditu, eta horietako hiru EAEko langileen arretarako erreferentziazko ospitaleak dira: Pakea klinika (Donostia), Ercilla klinika (Bilbo) eta Erresoluzio Handiko Ospitalea (Gasteiz).
Mutualiak Estatuko osasun-estaldura handitu du, Rama Korporazioko zentroen bitartez; izan ere, horko kide da, Ibermutuamur, CESMA, MAC, Mutua Gallega eta Unión de Mutuasekin batera.




mutualia

**Egoitza operatiboa**
Henao, 26
48009 Bilbao
944 25 25 00

**Egoitza soziala**
Camino, 1
20004 Donostia
943 42 65 00

Bezeroen arreta 900 50 60 70

www.mutualia.es
@mutualiamutua
@mutualiahealth

Foro mutualia
mutuaLEX
mutualia ikasgela-aula
mutualia